

Txuriko

Txomin Artola

TXURIKO

Gu gazte giñadela txalupa guztiak zakurtxo bat ohi zuten ontzi barranean begi erne, abilla, ez zen zaunkaria ihes zihoan arraia arrapatzailea.

Seme esango dizut nola gertatzen zen puñtutako arraia, suelto batzuetan legatzak ospa, ihes, txakurra jauzten zen ta bet-betan arraia hartzen zuen hortzetan.

Lana horren saria 'txakurraren partia' deitzen genuen guziok, ongi merezia maitea-maitea zen txakur ehiztaria txalupa betetzen zuen anima gabeak.

Unea etorri da zuri kontatzeko zer nolako txakurra zen gure Txuriko uhin izugarriak ez zuen izutuko arraia utzi baino, lehenago itoko.

Goiz itsusi batean ez naiz ez ahaztuko bere lana beteaz jauzi zen Txuriko baga haundi artean, ehiza ez utziko legatz haundi batekin ito zen betiko.

DURKHEIM

Durkheim, estazioa... tren bat norabait doa han zai neskato bat bakarrik anden puntan maleta bat eskutan, nahi al 'zu Winston bat?

Trenak etorri, joan neskatoa esperoan bere maletakin... jendartean bakarrik tristoraren ederrik zergaitik duzu min?

Begietan zuen hura iheskor den lilura ote zenduen maite? frutu bat utzi zizun trenak... zer etorkizun? etsipen ilunpe.

Halere aurreruntza tren itu horrek bultza nahiz nora jakin ez... goizero zuretzako berriz hasten delako bizitza urdinez.

GOBITEA

Ni bizi naizen ganbaran izarrak ditut eskura urruti entzuten zigarrak burdinezko mamuak teiatuetan dantzan.

Neguan da hotz eta udan bero ttantta eskeiniko dizut etorritz gero nahi dituzun kantariak nik maite ditudan olerkariak.

Ni bizi naizen ganbaran hilargiak ditut eskura bata geldirik eliz-dorreen bestea urduri zeru zabalean.

Ormak dira zuri, lurra ezpadrin Tubal-en soinuaren atzetik zenbat zenbat gau zuri orain bezala kantatzeko beti.

IXIL IXILIK

Ixil ixilik dago kaia barranean ontzi txuri polit bat uraren gainean.

Goizeko ordu-bietan esnatuzten gera arrantzaleak beti joateko urrutira.

Pasatzen naizenean zure leihopetik negarra irtetzen zait begi bietatik.

Zergatik, zergatik negar egin... zeruena izarra dago itxaso aldetik.

BAI BAI BEHI BI

Jazz musika nahi ta Ameriketara joan nintzen inglesa ta euskera nahastu nituen eten gabe arre esan eta so egiten zuten bertakoek hango gertaerak kontatzera noa segidan.

Jaialdi bat zuten Nevadako euskal-etxeok Peio kantaria oso kezkatuta ikusi nuen laguna galdu zuen beraz hasi ginen Pancho Villa herria mihatu ta J. J. Cale han zegoen.

Arizonako desertuan nintzen J.R. ostatu bateko argiak zioen 'KAIXO MOTEL' zerbeza pare bat eskatzera noa baina eh! Guinness tabernariak erantzuten dit: it's all right.

Ostatu jabearen izena zen Harrison Dick zarata entzun ta non azaltzen den arkakukux klan ostiko batez lurrera bidaltzen Larry McHilla bertako sheriffak Oh you! egiten dit: Hey! Kiko haiz?

Ene haurtzaroko amets bakeroak beteak ziren aurreko belardian ikusterakoan Buffalo Bill Zezen Eseri bat han zegoen ere pipa erretzen besoa altxatu: 'Hau! lagun hona nere baby'.

Denbora bukatu zen, hantxe utzi nituen Hamburgesak 'ez dakizu ba - ez dakizu ba' duoz kantatzen utzera noazu praka motxetan Bermudetan bye bye Amerika, agur Amerika, bai bai behi bi.

TXIKI TXIKIA

Ez nuen inoiz txapelik kentzen inoren aurrean eta orain berriz noa txoratzen deitzen nauenean otsoa nintzen ta bere eskutik jaten dut geroztik zakur gaiztoaren hortz haundiak ez ditut jadanik.

Txiki txikia bihurtu nintzen panpina bat besterik ez zen etzanda begiak ixten zituen, 'aita-ama' esaten zekien.

Beti izan naiz oso egoskorra, ah, ze aldaketa! urtu egin naiz bere ezpainetan izotzaren antzera ezpain gozoak, ezpain xamurrak, kontent dagoenean egiten dira mutur luzea haserre denean

Txiki txikia...

Jarrai behar ditut bere legeak, agindu guztiak zentzugabeko erokeriak ta jeloskeriak neska xarmant bat behin azaldu zen etxeko atarian jipoi ederrak jaso zituen bere ausardian.

Txiki txikia...

Azti guztiak esan didate galduta nagoela panpina honen hatzaparretan hiltzera noala ustekabearen denok gabiltza borrororen billa nere kasuan desiratzen dut bera izan dadila.

Txiki txikia...

GURUTZEDRAMA

Jantzi hobereak ziren nere ustez zigarroak ahaztu nituen gurutzegramen aldizkaria ez.

Betiko tabernak egin ondoren 'gaur ez dut ikusiko' pentsatu nuen.

Gurutzegramaren ordua iritsi zen berriz ere 'goitik behera zazpi: txitxiburduntzi' esan zenuen.

Denbora galtzen nuela ta farrez alde egin zenuen denbora galdu ta nola jakin gabe alde egin ere.

BLANKI BLUE

Zure bihotzaren hotzikarak zure ilusio lisiatuak ene gitarraren soka artean nahasturik aurkitu nahi nituzke eta arrastrietako haizearen armoniak kutxa batetan gorde oh, Blanki Blue.

Euria darien egunetan zure bihotzaren dardarekin haizearen armoniarekin melodia bat egingo dut, tristea, oh Blanki Blue, zure ezetza tristea izan zen bezala oh, Blanki Blue, zure ezetza tristea neretzat, nere melodia tristea zuretzat.

